

JOSE MARÍA JIMENO JURÍO

Navarra. Historia del Euskera

(389 orrialde)



JIMENO JURIO,
J.M., 2007,
*Navarra. Historia
del euskera in
Obras Completas*,
38. libk.a, Iruñea:
Pamiela.
(1.ed., Tafalla:
Txalaparta, 1997).

Jose Maria Jimeno Jurio

(1927-2002) Artaxoan jaio zen eta Iruñean hil. Altsasuko Institutuan egonaldi bat pasatuta, apaizgoa utzi eta osorik ikerlanera eman zen.

Nafarroako Historia, Erdi Arotik honakoa bereziki, eta berorren barruan euskararena aztertu zituen arreta bereziz. Nafarroako herrien ezagutzaile aparta, Jimenoren obran etnografiak toki zabala du.

Harritzekoa da Unibertsitatetik kanpo eta bere gisara burutu zuen lana, orain edizio erraldoi batean bildurik datorrena (62 liburuki).

Euskararen Historia Sozialera Jimeno Jurio-k egin duen ekarpenak orain arteko mugak hautsi ditu, kopuruz eta askotan kalitatez, idazlan guztien bilduma argitaratuan ikus daitekeenez.

Horri esker, Nafarroako historia hori da euskararen eremuan ongien agiritaturik ezagutzen duguna.

Artxibo-lan gaitza egin zuen, Erakundeen eta herritarren bizitza arakaturik, eta leku-izenek diotena agerian jarritz.

Nafarroako Erreinu eta Probintziako gizarte, erakunde eta pentsamendu-jarreretan nolako historia egon den erakutsi nahi du liburu honek. Gisa honetan, euskal herrialde bati modu oso eta berezian eskaintzen zaion lehen monografia da.

Ez da, ordea, autoreari bat-batean otu edo jaio zaion zerbait; aitzitik, urte luzetan eta hamarkadetan ere ondutako liburua da hau, lehenik artxiboetako paper zaharrak ezagutzuz, eta gero, gogoeta historiko eutsi batez baliaturik.

J. M. Satrustegi euskaltzainaren hitzaurrearen ondoren, Antzinate eta Erdi Aroaz hitz egiten digu autoreak, nahiko labur, eta zabalago erakusten zaigu euskararen bizitza nolakoa izan den XVI. mendetik hona.

Erreforma protestanteak euskarari zein leku aitortu zion, Kontrarreforma katolikoak nola jokatu zuen, 1587ko Erregistroko euskal albiste geografikoak.

XVII. mendeak hizkuntzaren inguruko jarrera eta berrantolatze berriak erakutsi zituen, baina baita eskualde-atzerapenik ere.

XVIII. mendean, Elizaren eta Argiztatuen hizkuntza politikek arrisku eta burubide arriskutsuak ekarri zituzten, eta horrek Nafarroan izandako eragina erakusten du hurrengo kapituluan.

XIX-XX. mendeetan aldeko eta aurkako bi fronte kontrajarrien arteko ahaleginak eta gatazkak deskribatzen dizkigu: euskararen krisi gogorra, eta berorri aurre egiteko erabaki eta ahalegin euskaltzaleak, zenbait gidari intelektualek ez ezik herritarrek sustatuak.

Obra irakurterraza eta bizia da Jimeno Jurio-ren hau.